BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1203

AGINDUA, 2014ko otsailaren 12koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Donostiako (Gipuzkoa) «Donostia» Hizkuntza Eskola Ofizialaren helbidea aldatzeko baimena emateko dena.

Donostiako «Donostia» Hizkuntza Eskola Ofizialaren instalazioak lekuz aldatzeagatik aurkeztutako helbide-aldaketaren proposamena azterturik, eta gai horretan aplikatzekoa den gainerako araudia ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Baimena ematen da «Donostia» Hizkuntza Eskola Ofizialaren (kod. 20008180) helbidea aldatzeko: lehen Donostiako Zemoria kaleko 24. zenbakian zegoen, eta, aurrerantzean, udalerri bereko Bizkaia pasealekuko 22. zenbakian egongo da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 12a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.